



FUNDACIÓN FERNANDO BUESA BLANCO FUNDAZIOAREN DOKUMENTAZIO ETA IKERKETA ZENTROA

Helburua

Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioa Dokumentazio eta Ikerketa Zentro bat proiektatzen eta planifikatzen hasi zen 2007an, terrorismoaren biktimen memoria eta, batez ere, Fernando Buesa Blancorena berreskuratzeko.

Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioaren Dokumentazio eta Ikerketa Zentroaren xede nagusia da Fernando Buesa Blancoren legatu pertsonal eta politikoa sistematikoki bildu, tratatu eta zabaltzea. Horrela, terrorismoaren biktimen memoria osatu eta zabaldu nahi da borraroen aurrean, biktimen testigantzen garrantzia azpimarratuz indarkeriarik gabeko espazio berri batean. Terrorismoak eragindako egoeran oinarritzen da memoria hori, zeinak erreferentziazko dokumentuak jasoko baititu kontaketa bat osatzeko indarkeria terroristaren esanahiaren inguruan, eta beti ere biktimen ikuspuntutik. Horrela, asmoa da biktimen onarpen soziala bultzatzea, bide horretatik aldatu dadin Espainiako eta EAeko gizartearen bizikidetzak politikoak, instituzionalak eta baita ere hiritarren artekoak.

Une honetan, erabiltzaileek Fundazioaren web orrian¹ sartu eta guk eginiko ikerketari buruzko dokumentuen hemeroteka digital bat kontsulta dezakete. Gainera, zenbait komunikabidetarako estekak aurkituko dituzte web orri espezializatuetan. Albisteetan jasotzen da, besteak beste, terrorismoaren biktimen esanahi politikoari eta ikusgarritasunari, biktimen testigantza pertsonalari eta terrorismoa etikoki, politikoki eta sozialki deslegitimatzen laguntzen duen orori buruz argitaratu dena.

Zer egin behar da Fernando Buesaren Dokumentazio Zentroko erabiltzaile izateko?

- 1.- Fundazioaren Etxeko orrialdean, egin klik "Dokumentazio Z"² erlaitzean.
- 2.- Erabiltzaile berriak Zentroko administratzailearekin erregistratu behar du lehenik; administratzaileak posta elektronikoz bidaliko dizkio erabiltzaileari zentroan sartzeko beharrezko gakoak.
- 3.- Erregistratu ondoren, /"banner" estekan (1. irudia) "klik" egin eta gakoak sartu behar dira. Gakoak sartu ondoren, Fernando Buesa Fundazioaren Dokumentazio eta Ikerketa Zentroan sartuko da erabiltzailea.

(Ikus programa)

**[USUARIOS REGISTRADOS PULSAR AQUÍ](#) ERREGISTRATUTA BAZAUDE EGIN
KLIK HEMEN**

I. Irudia

Informazio bilaketa

¹ <http://www.fundacionfernandobuesa.com>

² <http://www.fundacionfernandobuesa.com/centro.htm>



2. Irudia

Dokumentazio Zentroa erabiltzean, erabiltzaileak bi aukera izango ditu dokumentaziora sartzeko:

1. Goitibeherako bilaketako barra erabiliz: lehenik, erreferentzi eremua egokitu behar da, izenburua, egilea, data, deskribapena edo hitz gakoa aukeratuz eta ikertu nahi den testua idatzi behar da. Ondoren, egin klik "*Hasi bilaketa*"-n.
2. Zentroak ezarritako indizeak erabiliz. Gure kasuan bost izango lirateke: kontzeptuak, aldizkariak, izenburuak, egileak eta egunak. Horietako bakoitzean klik eginez gero, dokumentalistak indize horretan sartutako banakako erreferentziak irekitzen dira eta, erreferentzia horrekin bat datozen dokumentuen arabera, kontsultatu nahi den dokumentua zehaztu beharko da.

Aukeratutako dokumentuak ikusteko, bi aukera daude: TXT formatua (programa dokumentalean bertan irekitzen da) edo PDF formatua. PDF formatua erabiltzea gomendatzen da, irudiaren kalitatea TXT formatuarena baino hobea baita.

Amaitzeko, gure asmoa sistema hobetzen jarraitzea da, bai egitura mailan eta bai maila intelektualean ere. Gainera, Zentro Birtualean dokumentazio gehiago sartzten jarraitzeko asmoa dugu. Hobekuntza horien bidez, kontsultarako dokumentu digital gehiago edukitzeaz gain, Fernando Buesa Blanco Fundazioaren Dokumentazio eta Ikerketa Zentroaren helburuak lortuko lirateke: biktimen memoria, gure kasuan, batez ere, Fernando Buesa Blancorena ikusaraztea eta gordetzea, eta terrorismoaren deslegitimazio politiko eta soziala eta bere hilketa eragin zuen esanahi politikoa zabaltea.